


Arrasate

1996ko
abenduak 27
346. zenb.



Urte
Berri
On!

1997

URTE BERRI ANTZERKI BERRI!

Urtarrilak 17, 18 eta 19

TXALOk aurkeztuta

AGATHA CHRISTIEren Misteriozko Komedia

*LA
RATONERA*

*XAGU
TRAMPON*



Nor da hiltzailea?



ARRASATEKO UDALA

Urte berrirako etxeko lana

Arrasate Presseko aurtengo azken *ikuspegia* idaztea tokatzen zait eta horrek urduritasun erantsia ematen dio artikulua idazteari. Ez urte aldaketak niretzat esangura berezirik duelako, baina bai irakurleak espero dezakenaren aldetik.

Buruko danbolinari eragin eta ideiak bueltaka hasi direnean, duela gutxi irakurritako esaldi batzuk etorri zaizkit gogora. Egoera zehatz batean esandakoak dira, eta gugandik urrun, baina edozein kasutarako balio dutela esango nuke nik. "Zer egin? Nork bere buruari galdetu behar diogu hori, besteei baino lehen. Nork bere tranpatxoei aurre egiteko ausardia behar du izan. Funtzionarioak piloaren gainean jarri behar du,



Mikel Irizar

agerian, izkuta dezan eskatzen dioten espediente hori. Hiritarrak bere zergak ordaindu behar ditu, bere zerga guztiak! Bakoitzak bere mixeriak menderatzen baditu, gizartea berez sendatuko da. Ustelkeria txikiak desagertzen badira, ustel handiek ez dute izango zer bazkatu. Legeak beharrezkoak dira, baina legeek berez ez dute sekula ezer aldatu".

Ados nago. Gizartea besteak direla pentsatzeak ondorio lasaigarria dakar: arazoan konponbideak gugandik at daude. Administrazioa eta politikoak astintzen ditugunean ahaztu egiten dugu geure botuei esker daudela hor, desagertzeaz dauden astoak bezala, geure arduren zamak

bizkar gainean hartu eta geure astinduak jasotzeko. Iruzur txikiak oso erraz egin edo onartzen ditugu, badakigulako handiagoak egiten direla, lapurreta handien kontrako erremedioa lapurreta txikiak egitea balitz bezala.

Zilegi da, noski, zinismoa. Zilegi da pentsatzea mundua oso handia dela, mafioso eta aluz betea, gutariko bakoitza kaxatxo bat besterik ez dela eta kasurik onenean alferrikakoa dela ezertan hastea. Neu ere, zinikoa banintz, ez nintzateke apaiz kutsuko artikulua hau idazten arituko.

Baina niri zinismoak ez dit barrua lasaitzen, arazoek oraindik asaldatu egiten naute, gehiegikerien aurrean matxinatu egiten zait urdaila, sinesten dut -edo behintzat sinestu nahi dut- posible dela mundu hobea, eta zintzotasuna dela haruntza daraman bidea.

Bakoitzak bere buruarekiko eta besteekiko zintzotasuna indartzea. Horixe, Gabonetan hasita, urte berrirako proposatzen dizuedan etxeko-lana. ■

"Zinikoa banintz, ez nintzateke apaiz kutsuko artikulua hau idazten arituko"



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar-do Kortabamía. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubillaga, Maider Egues. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitlin Allende (Tfnoa: 77 09 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 09 15). **Disenatzailea:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Arloia, Rosa Mondragon, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribearen, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Aguirre, Jose Mari Asilgarraga, Jesus Larranaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmelo Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Birgine Urkiola, Jabi Luengo. **Banaketaren arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Orñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta intzienten erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza


346. zenbaki honetan

1996ko abenduaren 27an

<i>Ikuspegia</i>	3	<i>Asteko errepasoa</i>	8	<i>Urteko errepasoa</i>	17/30
<i>Asteko agenda</i>	4	<i>Santamasak 96</i> ..	10/15	<i>30 galderatan</i>	33
<i>Irakurlea idazle</i>	7			<i>Fotozaharra</i>	34

<i>Urteko errepasoa</i>	
<i>Urtarrila</i>	17
<i>Otsaila</i>	18
<i>Martxoa</i>	19
<i>Apirila</i>	20
<i>Maiatza</i>	21
<i>Ekaina</i>	23
<i>Uztaila</i>	24
<i>Abuztua</i>	25
<i>Iraila</i>	26
<i>Urria</i>	27
<i>Azaroa</i>	28
<i>Abendua</i>	30

Santamasak 96
Jaia argazkitan
 10/15 |



Errepaso aldizkaria: urtea batetik, Santamasak bestetik, argazki ugaziz lagunduta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 27

- 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
- Egunez eta gauez: Estella, Bergara

Larunbata 28

- 10ak arte: Español, Iturriotz.
- Egunez eta gauez: Mozos, Bergara.

Igandea 29

- 10ak arte: Corcuera, Musakola.
- Egunez eta gauez: Mozos, Bergara.

Astelehena 30

- 10ak arte: Irizar, Erguin.
- Egunez eta gauez: Camacho, Bergara

Asteartea 31

- 10ak arte: Amezua, Santamaina.
- Egunez eta gauez: Puy, Bergara.

Asteazkena 1

- 10ak arte: Ruiz, Maala.
- Egunez eta gauez: Guallar, Bergara.

Osteguna 2

- 10ak arte: Morales, San Andres.
- Egunez eta gauez: Estella, Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. . .	79 53 00
Igualdorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . .	79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara	76 55 76
-------------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
--------------------	----------

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria	77 03 46
• Espezialitateak	77 05 78
.	77 12 64
Onati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
--------------------------------	----------

Udaltzaingoa

Onati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	088

Ertzaintza

Arrasate	79 71 99
--------------------	----------

Suhiltzaileak

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . .	088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
.	79 78 44
.	79 76 78

Garraioak

Taxiak	79 12 22
PESA	79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC	79 51 55
---------------------	----------

Monterrongo liburutegia

Monterron	77 01 05
---------------------	----------

Irratia

Arrasate Irratia	79 58 77
----------------------------	----------

27 ostirala

■ ZINEA

En el nombre del hijo
Alai Zineman 7etan eta 9.30etan.

28 larunbata

■ ZINEA

Flipper Alai Zineman 5etan. Umeendako prezioa: 350pta. *En el nombre del hijo* 7.30etan eta 10etan.

■ GABONETAKO KONTZERTUA

Mondragon Brass taldearen kontzertua Amaia antzokian arratsaldeko 7etan.

■ BENITO LERTXUNDI BERRIRO ARRASATEN

Joan den astean sarrerak bukatu zirela eta, Benito Lertxundik berriro ere kontzertua eskainiko du sarrera barik getu zirendako. Amaia antzokian. Sarrera: dohanik. Gaueko 11etan.

30 astelehena

■ ZINEA

En el nombre del hijo Alai Zineman 7etan eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.

■ TXIKILANDIA

Txatxilipurdik antolatuta umeendako Txikilandia parkea Musakolako kiroldegian. Orduetgia: 11etatik 2etara eta 4etatik 8etara.

31 asteartea

■ TXIKILANDIA

Musakolako kiroldegian.

■ KONTZERTUA

Eguerdiko 11.30etan Arrasate Musikaleko Bandaren kalejira eta eguerdiko ordubatean kontzertua Herriko Plazan.

■ BIZAR-ZURI ARETXABALETAN

Bizar-Zuriren irteera Aretxabaletako kiroldegitik arratsaldeko 6.30etan. Herriko kaleak zeharkatuko ditu.

29 igandea

■ ZINEA

En el nombre del hijo Alai Zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ KONTZERTUA

Pablo Sorozabalen "Katiuska" zartzuela Aretxabaletako abesbatzaren eta orkestraren eskutik Aretxabaletako Andra Mari Parrokian 7etan.

1 asteazkena

■ ZINEA

Tin Cup Alai Zineman

■ ERREGE MAGOAK

Errege Magoek umeen eskutizak jasoko dituzte Al-Andalusen arratsaldeko 7etan.

2 osteguna

■ ZINEA

Tin Cup Alai zineman.

■ TXIKILANDIA

Txikilandia parkea Musakolako kiroldegian. Orduetgia: 11etatik 2etara eta 4etatik 8etara.

■ **KONTZERTUA AMAIAN**

Urtarrilaren 5ean Arrasate Musikaleko Orkestrak eta Goikobalu abesbatzak kontzertua eskeiniko dute Amaia antzokian eguerdiko 12.30etan. Purcell, Stamitz, Rutter, Willcocks eta Gruver musikarien piezak eskeiniko dituzte.

■ **MARGO ERAKUSKETA**

Urtarrilaren 7a arte Altuna Akizuren margoak egongo dira ikusgai Harresi Aretoan. Ordutegia: Egunean zehar 6etatik 8etara eta larunbat eta jailegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

■ **ERREGE KABALGATA**

Urtarrilaren 5ean Errege Kabalgatak herriko kaleak zeharkatuko ditu. Monterronen jaloza egongo da.

■ **TXIKILANDIA**

Txatxilipurdik berriz ere antolatu du txikienendako Txikilandia jolas parkea. Abenduaren 30ean zabalduko dituzte ateak parkeak eta 97ko lehen egunean izan ezik, urtarrilaren 5era arte izango da zabalik. Ordutegia goizez 11etatik 2etara eta arratsaldez 4etatik 8etara izango da, urtarrilaren 5ean, berriz, goizez baino ez da egongo zabalik. Txatxilipurdik Txatxibusa jarri du inguruko herrietatik hurbildu nahi duten umeendako. Autobusa goizeko 10.15etan aterako da Eskoriatzatik eta 10 minututik 10 minutura Aretxabaleta, San Viator Txiki eta Arbolapetatik pasako da. 11.15etan Aramaixotik aterako da eta Gesalibar-Urribarri Auzoa-Arbolapeta-Txikilandia ibilbidea egingo du.



■ **KARTEL LEHIAKETA**

Arrasateko Udalak Haratuzteak 1997 kartel lehlaketarako arauak kaleratu ditu. Kartelaren neurria 50x70 zentimetrokoa izan behar da eta formatoa bertikala. Kartelek derrigorrez "1997 Haratuzteak Arrasate" testua eraman beharko dute. Kartelak urtarrilaren 17a baino lehen udaletxera bidali behar dira.

■ **MISTERIOZKO KOMEDIA**

TXALO Proukzioak-en eskutik, urtarrilaren 17an, 18an eta 19an Agatha Christieren *La Ratona-Xagu Tranpa* misteriozko komedia antzerkia Amala antzokian. Sidal bat zozketatuko da antzerkiaren deskantsuan hiltzalea nor den asmatzen dutenen artean.

ALTZARIAK
Berango

*Beste urte bat egin dugu elkarrekin.
Hurrengo urtean zerbitzu berriekin
etorriko gara zuekin
elkarlanean jarraitzeko.*

*Bezere eta arrasatear guztioi
1997 urte zoriontsua opa dizuegu.*

ERAKUSKETA

Legarre Pabilloia, z/g • Gipuzkoa etorbidea • Tel.: 79 01 92



NISSAN MICRA



NISSAN ALMERA

NUEVO NISSAN PRIMERA



NUEVO NISSAN SERENA



NUEVO NISSAN TERRANO II



NISSAN MAXIMA QX



ZATOZ

ABENDUAK 31 BAINO LEHEN NISSAN AUTO BANATZAILE BATERA
EZ ZARA DAMUTUKO

AZKAR IBILI, BAKARRIK ZU FALTA ZARA



3 urteko garantia
edo 100.000 km. eta
6 urte antikorrosioa.

segur NISSAN

NISSAN FINANZAKETA

INTERNET: [HTTP://WWW.NISSAN](http://www.nissan.com)

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 / 71 20 02 - 20500 ARRASATE



**EIBAR-GASTEIZ AUTOPISTA
ETA INGURUGIROA**

Aurten hasi dira Deba bai-larako mendietan estakak jartzen, indusketak egiten... Eibar-Gasteiz (lehen Urbina-Maltzaga izenez eza-gutzen zena) autopista laster egiteko asmoarekin (hurrengo urtean hasi nahi da). Eraikiko balitz, gehiegitan bigarren ordeneko gai gisa kontsideratzen den ingurugiroa garrazki kolpatuko litzateke. Bailara hau oso estua da, alde bakoitzean malda asko duenlarik, eta ondorioz zabalera handia duen autopista batek lur kantitate itzela aterako luke (bide batez AHT egingo lukeen gauza bera, nahiz eta gutxiago). Zentzu honetan, esan behar da aspalditxotik lur emankorra pobretzen edo gal-tzen ari dela Deba bailaran, urbanizazioaren gehiegizko hedapenaren eraginez, eta lurraren gehiegizko ustiapenaren eraginez. Eibar-Gasteiz autopista, prozesua zeharo indartuko lukeen pausu tinkoa izango litzateke, eragingo lukeen lur emankor kantitate itzelaren desagertpenagatik. Hau baita aberastasun natural honi eman dakioken kolpe-rik gogorrena. Lurra zulatu,

hartu eta kentzea. Prozesu itzuli ezina da... lur hau erre-kuperatzeko milioika urteak beharko bailituzke naturak! eta esan gabe doa lurra beste leku batetik ekartzea, beste leku horretan arazo berdina sortzea dela, gainera lurra denbora luzea beharko luke-klarik trinkotzeko.

Honela ba, ingurugiroari egindako kalte hau zeharo larritzen da sortutako galera ezin delako konpondu. Kontentsazio gisa autopistaren proiektuak proposatzen dituen "neurri zuzentzaileak" ez dira ezer autopistaren eraikitzeak sortuko lituzkeen kalte handiekin konparaturik. Horrela-ko makro-obra batean "neurri zuzentzaile" hauetan konfiantza osoa izateak bi oinarri posible besterik ezin ditu izan: 1. Edo uste da ingurugiroa suntsiezina dela. 2. Edo ez da gizartearen gain benetan duen garrantziaz jabetzen. Zentzu honetan, nondik aterako da edateko ura? grifotik ala? nondik janaria? supermerkatue-tatik ala? nondik airea eta bizitzeko tenperatura egokia? Zoritxarrez ala zorionez, ingu-rugiroan dena lotuta dago, gu ere uste baino askoz ere lotua-go gaudelarik. Adibidez, zonalde bateko lurra erlazio

zuzena du landarezarekin, aldi berean landarezak zonal-de hortan egiten duen euria-rekin, eta euria, noski, guk bizitzarako beharrezko dugun ur edangarriarekin. Horrega-tik, Eibar-Gasteiz autopista-ren eraikitzeak bizitzarako beharrezkoak diren faktore hauetan eragina izango luke. Faktore hauek ez lirateke bere-hala aldatuko, zorionez, bai-na joera hori daraman bidean eragin akumulatiboa izango luke, era itzulezinean gaine-

ra, zoritxarrez. Beraz, gizar-tearen biziraupenerako abe-rastasun edo errekurtsio natu-ralak babestea hain beharrez-koa den aro honetan, bailara-ko lur aberastasuna zeharo despilfarratzea, eta gainera ia betirako, esan nahiko luke Eibar-Gasteiz autopistaren eraikitzeak.

Honetaz gain, beste ingu-rugiro arazo batzuk ere sortu-ko lituzke autopistak, baina hori beste batean azalduko da.

Urtzi Mendizabal

Urte Berri On irakurle!

Uste baino azkarrago ailegatu zaigu urtearen bukaera. Aldiz-kari bat bukatu eta beste bat hasi beharrenez premiaz, ia konturatu barik joan zaigu beste urtebete. Denbora hone-tan irakurle fin izan zaitugun horrentzat, noiz behinkako edo laguntzaile finko izan zaitugun beste horrentzat, eta zuen negozioetako publizitatea jarriz, gudan eta gure pro-dukuan sinestu duzuen beste horientzat eskerrik beroe-nak eta urte berri zorionsua ARKOn gabiltzan on izene-an.

Gehienok bezala, guk ere oporralditxoari ekingo dio-gu orain; urtarrilaren 7an bueltatuko gara, baina aldizka-ririk ez duzue jasoko hilaren 17a arte.


**ARRASATE PRESSeko
erredakzio taldea**

**ETXERAT
TABERNA**

**EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA!**

ZURGIN KANTOI, 5 ARRASATE TEL.: 79 20 52

DISCO-BAR



**Disco-Bar Gurelekuk
Santamas egun zorionsua
oparitzen dizu.**

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 79 20 29

USTEAK USTE

Balantzearen ordua

Lau egun barru akabo 1996a. Balantzea egiteko ordua, urtero letxe. Hasteko, ARKOkoen bizkar gainean 44 aldizkari, beste hainbeste Mondrasport edo Astebete saio, 300dik gora albistegi, auskalo zenbat prentsaurreko eta elkarrizketa, ehundaka inkesta eta argazki, milaka grabaketa minutu, hanka sartzeak, gura baino bilera gehiago baina ez seguruen behar beste, kexa ugari eta txalo gutxi.... Laburtzekotan eta baikor izateko, hiru puntu zehatz:

- 1) Arrasate Presen, aldaketa urtea. Hobetu guran, umetxoari jantzi berria jarri diogu eta elikadura aldatu.
- 2) Arrasate Telebistan, heldutasunaren saria. Herritik kanpo ere horrela hartu dute, horregatik Argia saria.
- 3) Egoitza berria. Orain urte batzuk agindutakoa gauzatuko da urtarrilean. Ospitale zaharra utzi eta Otalora kaleko egoitzara eraman behar traste guztiak.

Datorrenari begira, herrian gertatzen denaz informazioa zuzena eta zintzoa emateko borondate sendoa.

Beste barik, gogoz ekin datorrenari

Beñardo Kortabarria

ostiraleko plenoaren errepaso a

■ San Frantziskoko errotonda mahaigainean

Gaia gehiago aztertu beharra dagoela argudiatuz, San Frantziskoko urbanizazio proiektua mahai gainean uztea erabaki zuten EAJk, PSE-EEk, EAK eta PPKjoan den ostiraleko plenoan. Gobernu taldeak, berriz, gaia landuta dagoela eta lehenbailehen obrekin hastea komeni dela esan zuen. Besteak beste, errotonda bat egiteko asmo dago San Frantziskon.

Horrez gain, aurkeztutako eskaintzak egin beharreko obretara egokitzen ez direlako, Maalako Errabalako obrak oraindik ez adjudikatzea eta berriro ere lehia-keta deitzea erabaki zuten udalbatzak.

■ Zerrajeraren gaia atera

Zerrajeraren gaia atera, eta SPRIrekin hirigintza hitzarmena sinatzea proposatu zuen hirukoak. Gobernu taldeak ez zuen begi onez ikusi gaia batzorde informatiboan aztertu barik ateratzea, eta horregatik, mahai gainean uztea eskatu zuen. Hirukoak HBren eta EBaren eskaria onartu zuen, baina gaiak presa handia duela adierazi zuen.

Alkateak esan zuenez, Udalaren interesak kontuan izan behar dira hitzarmena sinatzerakoan. Jose Mari Loitik, berriz, gaia nahikoa landuta dagoela argudiatu zuen. SPRIk bidalitako hitzarmenaren arabera, erlojua duen eraikina ez litzateke botako. Gobernu taldeak,

berriz, ezer sinatu aurretik urbanistikoki eremu horretan zer eraikin nahi den definitu behar dela uste du.

■ AKEIko langileen eskaria

Akei-ko langileek euren egoeraren berri eman zuten plenoaren bukaeran, eta behingoz arazoari heltzea eskatu zieten zinegotziei. ELA sindikatuaren izenean hitzegin zuen ordezkariak, politikariak langileriatik aldentzen ari direla esan zuen.

Astearterako, bestalde, itxialdia bertan behera utzi zuten AKEIko langile ohiek. Gaur, ostiralean, Mankomunitateko lehendakariarekin bilera izan behar zutelako utzi zuten itxialdia.



SANTAMASETAN AHTren KONTRA

Jai giroko ekintzez lagunduta, Abiadura Handiko Trenak aurka daudela erakutsi nahi izan zuen hainbat lagunek zapatu arratsaldean. Kalejira, musika eta parodien bidez trenak ez zaigula komeni adierazi nahi izan zuten antolatzaileek. Era berean, txozna jarri zuten.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

Memesa
79 42 22


UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE



LEIHO ISOLATZAILEAK



Bezeroarekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak

**Irtenbide
aproposena!**








(I+D) Ikerketa eta garapena



Fabrika Zentrala

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.
Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Etxe Aundi
*Hotela***  *Jatetxea*

Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



*Gaur ez bada,
bihar
ezkonduko
zara...
Etxe Aundin
zure zain
gaituzu.*

Santamasak '96



NORK EZ ZUEN DANTZAN EGIN SANTAMAS EGUNEAN!

Giro ederra, kaleak jendez gainezka, musika doinuak nonahi, ikuskizun ugari... guzti hori eta gehiago izan zen Santamas egunean. Hori gutxi balitz, gainera, hego haizeak eguraldi ederra ekarri zuen. Eguraldi epela eta giroa bero-bero Santamas egunean!



TXERRIKIA ETA TXISTORRA, JAIAREN PARTAIDE

Azken urteetan bezala Elkarrikoek txozna jarri zuten Seber Altuben jendearen asegarri. Lan eta lan aritu ziren goiz osoan zehar, izan ere txistorraren usaina hartu eta ez hurbiltzea zaila egiten zen. Lanean jo eta ke aritu arren, ez zuten umorerik galdu eta auskalo zenbat txistorra mutur pasa zituzten zartaginetik.



USAINA, GUSTOA ETA ITXURA

Hiru gauza horiek kontuan izan zituzten epaimahaikideek gazta onena aukeratzeko orduan.

Nahikoa gazta probatu ondoren, lehen saria Joxe Iturbe bedoñarrari ematea erabaki zuten.

Bedoñarrak oso pozik jaso zuen saria, berak esan bezala "gaztaienak prestigio handia du eta".



HAINBESTE JENDEREKIN LAPURRAK POZIK

Jendea erruz ibili zen domekan, eta hori ondo aprobetxatzen jakin zuten batzuek. Domekan bakarrik, hogeitamar kartera baino gehiago lapurtu ziren. Abendua izan arren, batzuek abuztua egin zuten.

EZ DIDAZUE KENDUKO!

Eskaparate lehiaketaren sariak banatu ziren zapatuan. Lehen saria Ehune dekorazio dendakoei jaso zuten, bigarrena Totem zapata dendakoei eta hirugarrena Jovi pintura dendakoei.

Berriz ere saria jasotzea larregitxo iruditzen zitzaiolesan zuen Ehune-ko dekoratzaileak, baina gero ondo heldu zion!



EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Etxeak: 791844
Faxa: 792944

ARETXABALETA


SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE



BATZUK LANEAN MILAKA BEGIRA

Handia da Jokin Zaltegi plaza, aterpea du eta horregatik lasal lasal egon daitezke artisauek euren lana nola egiten den erakusten. Eguerdialdeko jende tropelarentzat, handi zena la txiki bihurtu eta gura balno neke gehiago artisauren lanak ikusi ahal izateko. Horl bai, pena merezi zuen, erakusketa bikaina zelako.



AITA, LOGUREA DAUKAT...

Eta zer hobeto lo egiteko aitaren sorbalda eroso baidano? Igandeko jendetzak asko nekatu zuen umea eta Herriko Plazako dantzariak, bertsolariak, trikitilariak alperrik zeuden berarendako... beste amets batzutan murgildurik zegoen.



TTAKUN TTAKUN TTAKUN...

Nora begira, Nagore? Bestea bai, *Kongi*, guztiz kontzentratu- turik txalaparta jotzen, baina

baserritarra... Dena dela bestea albora begira egon arren biko- teak soinu ederra atera zuen.



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

**Ondo ibili Gabonetan
eta zaindu zaitez!**

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: (943) 79 24 58



ILEAPAINDEGIA

Zatoz abenduaren 3in
eta urtea dotore amaitzeko
orraztuko zaitugu!!

ZIRT-ZART
ILEAPAINDEGIAK
URTE BERRI ZORIONTSU BAT
OPA DIZUETE.
ZURE ILEAREN
EDERTASUNAREN
ARDURA GURE ESKUETAN
UZTEAGATIK,
ESKERRIK ASKO.

Gorbea, 2 behea • ARETXABALETA
Tel.: 77 09 44

AEKkoek boletotxoen truke mariskada ederra jarri zuten jendearen begien aurrean. Zozketa egin eta 8.014 zenbakia saritua; boletoareen jabea, berriz, Anastasio Martinez. Izenak ez luke aparteko interesik izango saritua mariskoa eta arrainak jarri zituen peskateroaren anaia izango ez balitz, etxetik irteerakoak etxera berriro. Dena den, Anastasiok aitortu du berak laguntzearen erosi zituela boletoa, eta nahiagoko lukela beste norbaiti tokatuko balitzaio. Sari gazigozoa?

MARISKADAREKIN BUELTAN ETXERA!



BUZTANMOTZ:
4.025 ZENBAKIARI

Oraindik ez da saridunik azaldu, beraz, begira iezaiozu poltsikoan duzun errifa horri.



BERTSO SAIO DOTOREA

Gu ondo argituta eta zuek ilun Arrasaten giroa daukagu ezagun bertso hitza gidari ta txaloea lagun zuen zerbitzurako nahi genuke jardun bertso hitza gidari ta txaloea lagun guk ere Arrasate euskaldun dezagun

bota zuen agurrean Jon Sarasuak apurtxo bat pent-satu eta gero.

EGUBERRI ON ARRASATE!



LENIZ

Garagardotegia

Zorionak eta Urte Berri On!

Iturriotz, 8
Tel.: 79 22 29 ARRASATE



HORI DA SASOIA MUTIKOTE!

Makurtu, aurpegia zimurtu eta aupa! 100 kiloko harria leporaino. Goenatxo eta Perurena aritu ziren Santamasetan harrijasotzen. Ikuskizun paregabea erakutsi zuten eta forman dau dela gärbu utzi zuten. Aizkolariak ere indarrez ibili ziren: Larretxea, Olasagasti, Arrospide eta Peñagarikano. Bost enbor eta makina bat aizkorakada eman eta gero, Larretxea nagusi.



OLENTZERORI MILA ESKUTITZ

Mila? Edo akaso mila balano gehiagol Ez zuten ez lan makala izan Txoronpiak eta Txoronplok umeen esku-titzak jasotzen. Bi saku

handitan ilusio pila bat eraman zuten ondoren Olen-tzerori emateko. Honezke-ro ilusio guzti horiek erre-altate bihurtuko ziren...

FAMILI ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTROA 96-97 IKASTAROAK • 2. Hiruhilabetea

Ordutegiak aukeran: goizez, arratsaldez eta gauez.

OSASUN ALORRA

- Geriatria 2.maila.
- Emakumea eta osasuna.
- Lasaikuntza-masaia
- Eta abar.

GARAPEN PERTSONALEKO ALORRA

- Emozioen autokontrolerako teknikak.

ALOR SOZIO-KULTURALA

- Heldutasun trebatzerako prestaketa frogak.
- Literatura
- Eta abar.

LANBIDERAKO TREBATZE ALORRA



- Lanerako orientabidea; lana lortzeko teknikak.
- Eta abar.

TAILERRAK


- Tapizgintza eta makramea.
- Enkuadernazioa
- Zur-lanketa
- Sukaldaritza eta Gozogintza.
- Dantzak.
- Bainikak, Punto Gurutzatua...
- Eta abar.

EKINTZA BEREZIAK

- Hitzaldiak, eztabaidak...
- Bidaiak.
- Eta abar.



famili eta gizarte-
hezkuntzarako zentruak
centros de formación
familiar y social

 **kutxa** fundazioa
fundación

Urtarrilaren 7tik aurrera, informazioa eta izenematea.

Santa Teresa, 12 Tel.: 79 04 59 ARRASATE



ARRASATE ERDIALDEKO
MERKATAL ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

Arrasate erdian, Deba Garaiko merkatalgunerik handienean, erosketak izen propioa du.

Azaroaren 18tik urtarrilaren 4ra arte Arrasate erdiko
100 komertzio eta zerbitzuek **AUTO BAT** dohainik
lortzeko aukera ematen dizute.
Etorri eta egiazta ezazu!!!



Urte berri on eta zorte on!

Erdialdea bisitatzen duzunean aparkalekua erabil ezazu. Denok eskertuko dugu.

Urtarrila



Mankomunitateak jarduna finkatu

Urtarrilaren azken egunean Mankomunitateko kideek bilera berezia egin zuten: 96-99 legealdirako plana onartu zen. Plan horretan jasotakoaren arabera, lurzoru industrialaren gestioa egin beharra aipatzen zen, gero ekimen enpresarial bat dutenei eskeini ahal izateko. AKEIko erraustegiaren itxiera abenduaren leian izango zela eta, arazoari irtenbide bat eman beharra ikusi zen. Enplegu arloari zegokionez,

INEMekin lankidetz hitzarmena sinatu eta eskualderako mahaia sortzeko nahia jasotzen zen. Ekimen Enpresarialetarako Zentrua 97rako amaituta egotea ere jasotzen zen planean. Horren bidez ekimen enpresarial bat abian jarri nahi dutenendako toki fisiko bat edukitzea lortzen zen. Horrez gain, txakurtegia antolatu eta hiltegiaren zerbitzua hobetzeko nahia aipatzen zen lau urterako legealdian.

Izen propioak

AUKEA sariak

Eric Martin 17 urteko karateka gazteak kirolari onenaren saria jaso zuen. Gaur egun junior mailako Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna da.

Emakumezko Mondra taldeak talde onenaren saria jaso zuen.

Fernando Zufriak, Arrasate Atletiko taldeko entrenatzaileak, kirol merituen saria jaso zuen.

Enrike Kabiketak eta Maria Jose Gil korrikalariek aipamen berezia jaso zuten.

Antton Elortza atxilotu

Urtarrilaren 17an Antton Elortza atxilotu zuten Badajozen lan bidaian zegoela. Komunikabideek, besteak beste, Yoyesen ustezko hiltzailetzat jo zuten. Zabalduko informazioak min handia egin zuen herrian eta bere familian. Azkenean urtarrilaren 30ean arratsaldean behin behinoko askatasunean utzi zuten.

Anttonek gogoratzen duenez, "gogorra izan zen, gainera hemengo nahiz Badajozeko komunikabideek gezur asko zabaldu zituzten eta egia jakin zenean ez zuten atzera egin. Dena den, kartzelan ondo tratatu ninduten. Han, "el del hotel Alcalá" bezala eza-gutzen ninduten. Orain, zorionez, dena amaitu da. Sekula ahaztuko ez dudana han zegoen droga trafikoa da".

Lan istripuz hil

Santiago Boisa 24 urteko gazte arrasatearra eta Zaldibar txapelketako Cerveceria Leniz taldeko jokalaria hil zen lan istripuan.

Hego haizeak suteak piztu

Urtarrilaren 21ean izan ziren hego haize bolada handien ondorioz 38 hektarea erre ziren Arrasaten. Igande goiz hartan, sua piztu zen Udalan, Gargartzan eta Bedoñan. Zubillaga eta Urkulu artean 260 hektarea kixkalduta ziren. Egun berean arratsaldeko 5etan Makatzena auzoko etxe batek su hartu zuen ere eta bi emakume ospitalera eraman behar izan zituzten. Haizeak hainbat zuhaitz bota eta kristal eta poste telefonikoak apurtu zituen.


Elkarketa zibilen udal erregistroa sortu

Urtarrilaren 27an egindako plenoan, Ezker Batuak elkarketa zibilen udal erregistroa sortzeko mozioa aurkeztu eta onartu egin zen. Erregistro hau ezkondu barik baina bikote modura bizi nahi duten bikote heterosexual eta homosexualendako da. Erregistroan izena ematen dutenek babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa daukate. Orain arte zazpi bikotek eman dute izena.

Udala-PESA eztabaida

Urtarrilean PESAKo autobus orduetegi berria jarri zen indarrean. Buruhauste asko ekarri zuen aldaketa horrek, izan ere, orduetegi berrien berri eman baino lehen hasi ziren autobusak ez-ohiko orduetan geltokietara heltzen eta geltokietatik alde egiten. Urtarrilean ere ibilbide luzeko autobusak Musakolan geratzen hasi ziren Udalak PESARI eskaera egin ondoren.

Otsaila



Elurra mara mara

Otsailaren 3. astean sekulako elurtea erori zen. Elurraren ondorioz inguruko errepideak egoera kaskarrean geratu ziren, Gatzaga eta Krutzetako mendateak adibidez itxia

egon ziren. Euskadiko Kutzako zelaia berriz umez eta gaztez bete ziren eta batek baino gehiagok eskiak atera zituen elurretan hobeto ibiltzeko.

Pragako Balleta eta Keramika eskola berria

Otsailaren 10ean Amaia antzokia galaz jantzi zen. Europako ballet talderik onenak bisita egin zigun, Pragako Ganbara Balletak. 600 lagun hurbildu ziren balleta ikustera.

Bestalde Leintz Keramika

eskolak egoitza berria estreinatu zuen otsailaren amaiera aldera. Urtebete lokal berriaren zain egon ondoren keramika eskolako 30 bazkideek egoitza handiagoa inauguratu zuten.

Afizionatu mailako taldea

Otsailaren 2an Arrasateko Txirrindulari Elkar-teak afizionatu mailako talde berria aurkeztu zuen. Deba Garaiko azken talde afizionatua duela lau urte desagertu zela kontuan izanda, talde berriaren aurkezpenak poza ekarri zuen txirrindularitza mundura. Afizionatu talde berria sortzeko premia Dorletako Ama eskolan zebiltzan 16 urteko gazteen etorkizun ezak sortu zuen. Adin horretan txirrindulariei bi aukera baino ez zitzaien geratzen: txirrindularitza utzi edo beste talde batera joan. Gehienek lehen aukera hartzen zutelako ahalegin berezia egin eta afizionatu taldea eratu zen. Taldea eratu zenean, sendotu arte txirrindulariek diru saririk jasoko ez zutela adostu zen ere.

Txirrindularitzan beste berri pozgarri bat ere izan da azken egunotan. Arrasateko txirrindularizaleek Euskadiko Txirrindulari Itzuliko azken etapa eta erlojuaren aurkako froga, datorren urteko apirilaren 11an Arrasaten amaitzea lortu dute.

Garaikoetxeari bultzakada

Otsailean alderdi politikoen hauteskunde kanpainari ekin zioten. EAkoek adibidez Arrasaten hasi zuten kanpaina otsailaren 16an eta arratsaldean Karlos Garaikoetxea etorri zen Monterronera mitin politikoa ematera. Mitina hasi baino lehenago tentsioa izan zen, presoek Euskal Herriratzeari eskatuz hainbat lagun bildu zen eta Monterronen. Arrasateko EAkoen esanetan iraindu egin zituzten eta Karlos Garaikoetxea zango trabatu zuten eta ia lurrera erori zen. Hortik aurrera Arrasateko EAren eta HBren arteko harremanak txartu egin ziren.

Parrokiaren zaharberritzea

Otsailean parrokiaren zaharberritze obretako kanpoko lanak amaitu ziren. Teilatua, Erdiko-Kaleko fatxada eta Herriko Plazako fatxada berritzeak 192.815.656 pta. ko kostua izan zuen. Teilatua eta inguruak berritzeak ekarri zuen kostu gehien, 116 milioi. Horri aurre egiteko diru laguntza pribatu eta publikoa bilatu zuen batzordeak.

Hurrengo pausoa barrualdea berritzea zen. Proiektua eginda dago baina behin betirako onartzea falta da oraindik. Bitartean obrak geratuta daude.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa ■ Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea
eta hizkuntz bereziera)

Logopedia ■ Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak,
enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE

ARROGOI TABERNA

Gabonak iritsi dira, zatorz sugana!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40

Martxoa

PSE-EE garaile Kongresu eta Senaturako hauteskundeetan

PSE-EE alderdiak lortu zuen boto gehien Arrasaten martxoaren 3ko hauteskundeetan. 93ko hauteskunde orokorretako emaitzekin konparatuz, 153 boto galdu zituen baina udal hauteskundeekin alderatuz gero, mila baino gehiago irabazi.

EAJk, EBk eta PPK botoak irabazi zituzten eta HBk eta EAK galdu. Emaitzak hauek izan ziren:

Hautesleak	20.305
Abstentzioa	5.826 (%28,69)
PSE-EE	3.559 (%25,09)
HB	3.046 (%21,47)
EAJ-PNV	2.945 (%20,76)
EA	1.907 (%13,44)
PP	1.364 (%9,61)
IU-EB	1.256 (%8,85)

Hauteskunde eguna normaltasunez burutu zen. Estatuan PPK irten zuen garaile PSOE 3 agintalditan botorean egon ondoren.

Izen propioak

Josemari Velez de Mendizabalen "Moskuko Gereziak" elaberria argitaratu zen. Guztira, 3 liburukaleratu ditu aurten Velez de Mendizabalek: Moskuko Gereziak elaberria, Gerardo Lopez de Gereñu ikerlariaren biografia eta "Nire haurtzaroko Arrasate".



Kalean gauzak bero

Jarraik deituta, martxoaren 7an errepresioaren aurkako manifestazioa egin eta istiluak izan ziren Ertzantzaren eta manifestariaren artean. Istiluetan Ertzantzaren auto bat erre eta Ertzantzak bi gazte atxilotu zituen: Ibai Garai eta Haritz Oiangueren. Ondoren gertutakoaren inguruko bertsio kontrajarriak eman ziren. Ertzantzak zioenez bi gazteek hiru molotov koktel bota zituzten euren auto

kamuflatuaren aurka barruan zeudenean. Gestorak berriz, auto kamuflatua etorri, bi ertzainak kotxetik jeitsi eta bi gazteak atxilotu zituztela. Martxoaren 19an aske utzi zituzten Ibai eta Haritz ertzainek bi gazteak koktela bota zutelaz ziur ez zeudelako. Arrasateko Ezker Abertzaleak Arrasateko ertzaindegira nagusi berria etorri zenetik Ertzantzaren jarreara aldatu zela salatu zuten.

Presoak Euskal Herriratzeko mozioa onartu

Martxoaren 4an egin zen plenoan Arrasateko Senideak elkarteak presoak Euskal Herriratzeko mozioa aurkeztu zuen. Mozioa onartu egin zen. Plenoan alderdi bakoitzak presoan Euskal Herriratzearen inguruan duen eritzia eman zuen. PSE-EE alderdiak gutun baten bidez erantzungo ziela eta Senideak-ekin harremanak normalizatzearen aldekoak zirela esan zuen. EAJk Instituciones Penitenciarias-i presoak Euskal Herrira ekar ditzala eskatzearen ardura Udalaren esku utzi zuen. Arrasateko Senideak elkarteak positiboki baloratu zituen plenoan entzundakoak. "Itxita zegoen atea zertxobait zabaldu da" esan zuen Felix Lopezek, Senideak-eko kideak.


Ijitoak Musakolan

Martxoan zehar ijito talde bat Musakolako aparkalekuan egon zen akanpatuta. Auzo horretako bizilagunek ijitoen kontrako jarrera azaldu zuten hauek sortzen zuten zikinkeriatatik eta etengabe eskean zebiltzalako. Dendariek behin baino gehiagotan lapurretan harrapatu zituztela salatu zuten. Musakolako bizilagunek sinadurak bildu eta hainbat idatzi kaleratu zituzten Giza Eskubideen Elkarteak euren aurka esandakoa salatzen. Arazoa ezagutu barik iritzia ematea leporatzen zioten giza eskubideen elkarteari. Ijitoen auziari irtenbidea bilatzen laguntzeko, Gipuzkoako SOS Arrazakeriako bi lagun etorri ziren Arrasatera.

Inaki Maidagan arrasatearra Gokobaluko zuzendari berria izendatu zuten. Luis Ignacio Ruiz de Alegria "Jimi" karguari utzi zion.

Ines Osinagak eta **Naiara Okinak** Euskadi Irratiko Trikiti Pieza Berrien Txapelketan lehen saria eskuratu zuten "Nahi bai baina..." piezarekin.

Apirila



Auto elektrikoa kalean

Eskola Politeknikoak, MCCk eta Iberdrolak elkarlanean egin-dako auto elektrikoa aurkeztu zen apirilaren 22an Bilbon. Bateria bidez mugitzen den autoa erretxinaz eta zuntzez egina dago, orduko 90 kilometro abiadura hartzeko gauza da.

Zartzuela emanaldi ederra Amaian


Aspaldiko partez Zartzuela emanaldia izan zen Amaia antzokian apirilaren 20an. Arrasate Musikalek antolatutako ekintzan 450 lagun elkar-tu ziren. Bi ordu térdi iraun zuen emanaldia jendea aho zabalik ixteko modukoa izan zen, eta bertara hurbildutakoak hunkituta irten ziren. Zartzuela Madrilgo Zartzuela Konpañiak eta Ostravaka orkestrak eskeini zuten. Gainera Arrasateko zazpi mutiko antzezlan lanak betetzen egon ziren.

Kirolen hilabetea

Albiste pozgarri beteta etorri zitzaigun apirila. Rugby talde-ak Euskal ligako txartela lortu zuen, Mondrako emakumez-koek bigarren mailara igo eta Urbina Maltzaga bikain ibili zen.

Arrasateko kirolak une goxoenak bizi izan zituen. Poz-tasun horrek dena dela, izan du bueltarik. Gora igo zuten taldeek edo ondo ibilitakoek aurtien makal samar dabilta. Ulertzekoa, goiko maila batek beti gehiago eskatzen du eta askotan maila hori lortzea nahi baino gogorragoa izaten da eta. Kirolak bizitzako beste alorrak bezala bira asko ematen ditu, eta kirolzale zein kirol-lariei egoera bakoitzari aurre egiten jakin behar dute.

Itxaro Zubillaga



weru®

weru®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVCko ate eta
leihoez gain:
Moketak jartzea,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, textila...

Maiatza

Mondragon Unibertsitatea aurkeztu

Maiatzaren 8an ofizialki aurkeztu zuten "Mondragon Unibertsitatea" proiektua bere sortzaileek: Eskola Politeknikok, Oñatiko Enpresa Eskolak eta Eskoriatzako Irakasle Esko-


lak. Orain, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak onartu beharko du proiektua, eta ondoren Legebiltzarrak. Prozesu hori uste baino gehiago atzeratzen ari da.

Opozisioaren aurrekontuak onartu

EAJren, EAren eta PSE-EEren aldeko botoekin, maiatzaren 31n hiru alderdi horiek egindako aurrekontuak onartu ziren. Opozisioak ez zuen gobernu taldeak aurkeztutako emendakin bakar bat ere onartu. Aurrekontuetan 120 miloi lursail industrialak erosteko zuzendu zituzten, eta urtearen amaieran jakin zen Mugarri-

tten erosi behar zutela industriarako lursailak.

Hasiera batean Urribarriko jubilatuen egoitza berritzeko dirulaguntzarik zuzendu ez zela eta, Urribarriko jubilatuen presioa egiten hasi ziren. Presioek ekarri zuten emaitzarik, beranduago dirulaguntza zuzentzea erabaki zuten hirukoak eta.



Alkatea atxilotu eta Udala Eudiman

Maiatzaren 31n alkatea atxilotu zuten, Bilboko Auzitegi Nagusira deklaratzera eramateko. Plenoak erabakitakoaren arabera, Udalak ejerzitoarekin kolaboratzen ez duelako atxilotu zuten Zubizarreta. Eguerdian aske utzi zuten.

Arratsaldean, ostera, Eudiman sartzea erabaki zuten Udalak HBren, EAren eta EBaren aldeko botoekin.

Hilabete batzuk beranduago, Auzitegi Nagusiak Udalak ejerzitoarekin kolaboratu behar zuela jakinarazi zuten, baina Udalak errekurritu egin du erabakia Auzitegi Gorenean.

Padroia berritzen hasi

Herriak zenbat biztanle dituen jakiteko, maiatzaren 2an udal padroia berritzen hasi ziren. Arrasateko 8.700 etxe bisitatu ziren, etxe bakoitzean zenbat bizi diren zenbatzeko. Zenbaketa egin ostean, 24.469 biztanle zenbatu dira Arrasaten.

Gimnasia erritmikoa

Maiatzaren 25ean Gimnasia Erritmikako Gipuzkoako Txapelketa egin zen Arrasaten. Iturripen 180 gimnastatik gora elkartu ziren. Arrasateko ordezkariak lan polita egin zuten.

Aurrekontuak onartu

96ko aurrekontuak onartu zituen Mankomunitateak maiatzaren 29an. Aurrekontuak onartzerakoan, HBko bi ordezkariak abstenitu egin ziren.

MCCk 95a baloratu

Mondragon Korporazioak 95eko iharduera nola joan zen jakinarazi zuten maiatzaren 29an. 37.886 milioiko irabaziak izan zituzten iaz, eta inbertsioen bidez 1.960 lanpostu berri sortu zituzten.

Gaztetxearen V. urteurrena

Maiatzaren lehen asteburuan bostgarren urteurrena ospatu zuten Arrasateko Gaztetxeak.

Izen propioak

Pello Urizar arrasatearra, EAko Gazte Abertzaleleak-eko idazkari izendatu zuten. Pello EAko zinegotzia da Arrasateko Udalean.

Jon Arexolaleiba, "Gatxi", aske geratu zen maiatzaren 25ean hamar urte preso egon ondoren.




Jon Agirrek eta Pako Roblesek, hamabost urte bete zituzten kartzelan. Biei elkartasuna adierazteko, maiatzaren 19an omenaldia eta manifestazioa egin ziren Zigarrolan.

Jesus Mari Barrutiabengoak, "Txixu"k, Mondrako entrenatzaile kargua hartu zuten.



Joseba Ezpeleta, AEDko lehendakari izendatu zuten. Miren Arregi ordezkatu zuten Josebak.

ARIANE



*Gabon
zoriontsuak
eta urte berri
on!*

**Erdiko Kale, 14
ARRASATE
Tel.: 79 27 33**



Emakume eta gizonezkoetan barruko jantzietan espezialistak

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tel.: 79 20 18

Ekaina

Roneo zaharra Hiper Eroskiri tokia uzten

Ekainean Roneo Zaharra botatzen hasi ziren. Eskabadorek segituan bota zituzten lantegi zaharraren hormak, eta jarraian supermerkatu berria eraikitzen hasi ziren. Egoera berri honen aurrean, Ibai-Arte elkarteak euren kezka plazaratzen hasi ziren. Azaroaren 19an inauguratuko zen Deba Garaiko zentro komertzial handiena. Supermerkatu berria lehen zegoen Maxia baino lau aldiz handiago da. Supermerkatu berria egin dela eta, inguruko trafikoa ere beste era batera bideratu da. Besteak beste, bi glorieta egin dira, trafikoa arindu eta autoak abiadura txikiagoan ibil daitezten.



Donostiako Orfeoiaren mendeurrena

Duela 100 urte egin zen moduan, 70 kantari diligentzian heldu ziren ekainaren 28an. Donostiako Orfeoiaren mendeurrena ospatzea izan zen helburua, lehen kontzertua Arra-

saten eman zen eta. Arratsaldean herriko plazan emanaldia eskaini eta gero, gauean emanaldi paregabea izan zen Goi-kobalu eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eskutik.

Jose Mari Pagoaga itzuli

Hainbat deportaturekin batera, Jose Mari Pagoaga arrasatearra Euskal Herrira itzuli zen. Baionako katedralean egon ziren itxita hasieran, baina ondoren atxilotu eta kartzelan sartu zuten. Azaroaren hasieran aske utzi zuten. Aske utzi zutenean, ongi etorri beroa egin zioten Arrasaten.

Argi Ibili txapeldun

Argi Ibili taldeak eskuratu zuen Zaldibarko futbito txapelketa, ekainaren 1ean. Finalan 6 eta 3 irabazi zion Cerveceria Leintzi.

“Arrasateko Toponimia” liburua aurkeztu

Ekainaren 14an, J.L. Ormaetxeak, “Txipik” egin dako “Arrasateko Toponimia” liburua aurkeztu zen. Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko kide batzuk etorri ziren ekitaldian parte hartzera. Liburuan, Arrasateko 2.000 lekuizen jasotzen dira.



San Juan jaiak: herria dantzan

Ekintzaz blai eta “Geu gara garra” lemapean heldu ziren San Juan jaiak. Ekintzek ikusleak erakarri zituztela ikusita, antolatzaileek balorazio positiboa egin zuten bukaeran. Jaiaren hasieran J.M. Urangari, herriko urrezko domina jarri zioten egindako lanagatik. Eki-

taldi horretan, gainera, “Nire Hautzaroko Arrasate” liburua aurkeztu zuen J.M. Velez de Mendizabalek.

ASA taldeak, bestalde, J.M. Lasagabasterrek ateratako argazkiekin erakusketa antolatu zuen.



Santana auzoa, 4 etxabea Tel.: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



Uztaila

Eskola Publikoen eskaintza

Uztailean obrak egiten hasi ziren San Antolin ikastetxean. Edifizio horretan, haur eta lehen hezkuntzakoak ikasten dute orain. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoek, berriz, Musakolako eskolan ikasten dute. Institutua ere bertan dagoenez, eskaintza publikoa Musakolan zentratu da.

Zinegotzia parlamentari

Isabel Gallastegi, zinegotzi arrasatearra EAko parlamentari izendatu zuten Eusko Legebiltzarrean. Arrasatearra Inaxio Oliveri ordezkatzera sartu zen.



EBZ-a itxura hartzen

Arrasateko Udaletxean aurkeztu zen uztailearen 5ean Arrasateko Enpresa eta Berrikuntza Zentroa. Aurkezpen ekitaldira enpresetako eta administraziozko zenbait ordezkari hurbildu zen, eta guztiek EBZari laguntza emateko konpromizua azaldu zuten. Zentroaren partaide izango diren lehen enpresen berri ere

eman zen.

Beranduago, berriz, egoitza Cerrajeran joango dela jakin zen, SRIPk edifizio zentrala erosi ostean.

Aurkeztu arren, oraindik notarioaren aurrean eskriturak sinatzea eta Udalarekin hirigintza hitzarmena sinatzea falta da. Behin hori eginda, zentroa eratuta geratuko litzateke.

Juan Jose Etxabe hil

Uztailearen 12an hil zen Urruñan Juan Jose Etxabe bihotzkeoak jota. Arrasatearraren aldeko hileta elizkunak Arrasaten egin ziren egun batzuk

beranduago. Lagun ugari etorri zen Arrasatera arrasatearrari azken agurra ematera. Hileta elizkizunaren ostean, omenaldi hunkigarria egin zitzaion

Herriko Plazan.

Etxabe ETako kidea izan zen lehen urteetan, eta azkenetan berriz, Elkarriren inguruan zebilen.

Fagor eta Ikusi

Uztailearen 2an ez ohiko bilerara egin zuen Fagor Elektronikak, eta bazkideek onartu egin zuten Angel Iglesias S.A.rekin sozietate berria eratzea. Indarrak bildu eta telekomunikazioaren alorrean lehenak izatea zen helburua, baina azkenean bategitea ez da gausatu.

El Rocío euripean

El Rocío eguna ospatu zen Udalan. Uztailearen 6a euritsu esnatu eta erromeria bertan behera geratzekotan egon bazen ere, amabirjina Udalara igo zuten andaluziarrek.

Batzokia erasotu

Uztailearen 14an Arrasateko Batzokia erasotu zuten. Erasotzaileek Batzokiko lehioa apurtu eta molotov koktelak bota zituzten. Ondorioz, mahai eta aulki batzuk erre, instalakuntza elektrikoa hondatu, eta paretak belztuta geratu ziren.

Lore Gazteak-en emanaldia

Lore Gazteak dantza taldeak emanaldi berezia eskaini zuen uztailearen 19an, Monterroñen. Jende ugari hurbildu zen Arrasateko dantza taldearen emanaldia ikustera.

**ANBOTO
BODEGA**

Auzo giro jatorria!

Anboto, 1 behea
Tel.: 77 09 15 ARRASATE



Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Pavimentos AGR
EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

Abuztua


Leze Txikin Indusketak egin zituzten abuztuan

Abuztuaren erdialdean Alvaro Arrizabalaga, Aranzadi Zientzi Elkarteke arkeologoa eta Arrasateko laguntzaile batzuk Leze Txikin indusketak egiten hasi ziren. On Jose Migel Barandiaranek 1968an utzitako lanari ekin eta kobaren hegoaldeko lur zati berri bat aztertzen hasi ziren adituek. Indusketaren helburu zientifikoak hiru ziren. Lehengoa kronologia, beste puntu bat estratigrafia eta azken polen muestrak jaso, ana-

lisiak egin eta orain arteko datuak zehaztu. Abuztuko azterketan adituek Leze Txiki txarto zainduta zegoela aipatu zuten eta aurrera begira duen balore guztia ez galtzeko hainbat aholku luzatu zuten, batetik koba kalifikatua izatea eta bestetik aztarnategia babestea. Aranzadikoek txostena Udaletxean aurkeztu zuten, bertan aztertu dute eta datorren urtean hartu beharreko neurriak hartzeko asmoa azaldu du Udalak.

Roberto Sampedro bihotzekoak jota hil

Roberto Sampedro bihotzekoak eman eta hogeigun koman egon ondoren, abuztuaren 29an hil zen. Pitote gaitzizenez ezaguna zen arrasatearrari abuztuaren 30an egin zioten omenaldia. Herriko Plazan bi mila lagun inguru elkartu zen.



Txernobil Elkarteak Arrasaten

Shasha hamahiru urteko neskatilla ukraniarra Txernobil elkartearen bidez Arrasaten izan zen abuztuan. Berrogei egun inguru egin zituen Jesus Mari Villaren familiarekin. Urriaren 23an Txernobil elkartearen aurkezpena egin zen. Elkarte horren helburua edozein hondamendiren ondorioz kaltetuta suerta daitezen umeei laguntza eskaintzea da. Elkarteak 122 bazkidek osatzen dute, dirua udaletxe desberdinetatik, bazkideetatik eta antolatzen diren ekintzetatik lortzen dute.

ARGI PLASTIC

- PVC ETA ALUMINIOAN EGINDAKO LEIHOAK, MANPARAK...
- LANTEGITIK ZURE ETXERA ZUZENEAN

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik!

Tailerra eta bulegoa:

Zigarrola, 1-8 pabiloia • Tel.: 77 11 30 • ARRASATE



ESKIÑA taberna

Zorionak eta Urte Berri On!

Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 79 20 20

OKORETEGI

KAFETEGIA

Urte Berri On!

Juan Carlos Guerra, 5 behea ARRASATE Tel.: 77 03 62



Lubia Cinetakoak

Urte Berri On!

Poltzak • Zapatak • Gerrikoak

Mitarte, 14 Tfnoa: 79 16 00 ARETXABAETA
Biteri, 1 Tel.: 79 66 53 ARRASATE

Jai Zoriontsuak!



HEMEN
gozotegia
GAO kafeak
Kroissanteria

Sebero Altube, 8 • Tel.: 79 94 99 • ARRASATE

Iraila

Euskalan lan munduan eta euskara

Inguruko hainbat lantegietan euskararen presentzia areagotzeko Euskalan elkarte sortu zen Irailean. Euskalan elkarte moduan egituratu zen, izaera independenteaz. Elkarte horren eginbehar nagusia hauxe litzateke: euskara esparru guztietan hedatzea, idatzizko, ahozko, kanpoko zein barruko harremanetan eta baita komunikazio formal eta informaletan ere. Euskalanez lau helburu finko ezarri zituen bide berriari ekiteko: Lehenik eta behin

enpresetako langile euskalzalak bildu,

euskararekiko sentsibilizazioa sustatzea, gaurdainoko esperientziei buruzko informazioa zabaltzea eta azkenik ekintza guztiak koordinatu ahalik eta emaitza onena ateratzeko. Euskararen aldeko elkarteak une honetan 1.300 bazkidez dago osatuta.



Santa Ageda ospitala monumentu historikoa

Santa Agedako ospitale psikiatrikoa monumentu izendatu eta euskal kultura ondarearen inbentario orokorrean

sartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak irailean. Sagrado Corazon izeneko eraikina sartu zuten inbentarioan.

Izen propioak

Haritz Etxeberria 23 urteko gaztea irailaren 15an hil zen auto istripuz Bergaran. Haritz ARKOk laguntzailea zen.

Albina Madinabeitia Arrasateko Bibolinjole ezaguna irailaren 18an hil zen 87 urte zituela. Azken urteetan Arrasate Musikaleko irakaslea izan zen.

Kiroldegia egoera kaxkarrean

Musakolako Kiroldegiko hormetan pitzaduren ondorioz eraikinaren egitura kaltetuta zegoela esan zuen Labein enpresak Udalaren aginduz egindako azterketan. Konponketa lanak 175 milioiko kostea izango du. Azterketan esanenez, zortzi hilabeteko iraupena izango luke kiroldegiko estruktura konponetzea. Ikerketa egin aurretik Udalak ez zuen uste hainbeste kalteak egongo zirenik. Hori dela eta oraindik ez du erabaki zer egin.

Alkatea atxilotu

Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea irailaren 27an Gudara egunean egin zen manifestaldian atxilotu zuen ertzaintzak. Atxiloteta zela eta Udaleko gobernu batzordea osatzen duten alderdiek HKB eta EBak idatzia atera zuten Xabier Zubizarretaren atxiloteta salatzeko. Bestalde, Xabierrek atxilotu zutenen agenteen aurka salaketa jarri zuen.

Jose Mari Plazaola Nere bere txakurrarekin Oñatin burututako Ardi Txakurren Nazioarteko Txapelketako bigarren postua eskuratu zuen irailaren 22an.

Mari Jose

Urte Berri On!

OINETAKOAK

Erdiko kale, 20 • ARRASATE
Tel.: 79 22 98

BAKAILO ETXEA

- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailoan espezializatua
- Bakailo kazoletak prestatzen dira (bakailo gatzgabetua daukagu)



Urte Berri On!

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 79 93 07

Siti Siti

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

Urria

Izen propioak



Rafi Romero zinegotzi sozialistak kargua utzi zuen. Egigurenekin ezkondu eta bizi izatera Donostiara joan zen eta. Bi hilabete baino gehiago pasatu dira ordutik, baina oraindik sozialisten taldeak ez du Rafi Romeroren ordezkari-rik aurkeztu.

Aitor Lopez Rekarte arrasatear gazteak, 2000. urtera arteko kontratua sinatu zuen Realaren lehen taldearekin. Hala eta guztiz ere, infantil zenetik Donostiako taldean ari den mutilak, ez du oraindik partidu ofizialean Realarekin jokatzeko aukerarik izan.

Armadaren presentzia gaitzestu

Inguruan bezala, urrian espainiar armadaren soldaduek maniobrak egin zituzten Arrasaten. Udaltzak, armadaren presentzia gaitzestu zuen.

Herriko plano berria

Arrasateko 7.000 plano berri egin ziren, eta etxez etxe banatu ziren dohainik. Planoan kaleak eta baserriak agertzen dira, interesa duten eraikinen zerrenda eta interes publikoko hainbat telefono zenbaki.

Ospakizun egunak Besaiden

Udalatxen gurutzea jarri zeneko 25. urteurrena batetik, eta Leixargarateko aterpetxea egin zeneko urteurren berdina aitzaki bestetik Besaide elkar-tea ospakizunetan sartuta ibili zen urrian zehar.

Senideak:

Presoen eskubideen aldeko lanean

Euskal Presoak Euskal Herrira kanpainan sartuta egon da urte osoan Senideak elkarteak. Kanpainan atxekimendu ugari lortu dituzte; horien artean aipagarria urrian Fagorreko kontseilu sozialaren aldetik jaso zuena.

Urtearen inguruko balorapena, Jon Barrenaren esku-tik:

“Senideak-en lan dinamikan 1996a garrantzitsua izan da, gizarteko sektore garrantzitsuen inplikazio publikoa lortu baitugu zigortutako gure familiarren eskubideen alde.

Gizartearen gehiengoak erakutsitako inplikazio eta elkar-tasuna hor egon arren, gobernu espainiarraren intolerantziaren erruz, presoen egoera ez da batere aldatu. Intolerantziaren aurrean presoek urte osoan zehar gose greba gogorak egin behar izan dituzte, bakarrik kartzeletakoa superbibentzia premiaz uler daitezkeenak.

Horregatik, Senideak-en lanean jarraituko dugu, gizarte-ari presoen egoeri buruzko informazioa emanaz, ondo dakigu eta informazioak iriz-pideak sortzen dituela, eta irizpideak konpromisua”.



**Gabonetan
ondo pasatu nahi baduzue...
joan edozein tokira.**

**Baina, izugarri ondo pasatu
nahi baduzue... etorri “BAR”
BAR GARIBAI 5.**




Azaroa

ARKOren hilabetea: Argia Saria ATBri eta aldaketak aldizkarian

Arrasate Pressen 300. zenbakia argitaratu zenean, Martxelo Otamendik izendapen berezia jarri zion aldizkariari: "herri aldizkariaren dekanoa". Norberaren burua goraiatzeko ibiltzea ez dago ondo, baina errealitatea da Arrasate Pressi nolabaiteko lidergoa aitortzen diotela gainerako herri aldizkariak; aitzindaritasun kontua seguruen. Neke handiz eskuratutako toki hori ez galtzeko, baina, produktuak eguneratu eta hobetu behar, aire berria eman, freskotasuna... eta hortik etorri ziren Arrasate Presseko aldaketak, hile batzuk aurretik landu eta gero.

Aldaketetan egindako apustuak utzi zigun gusto ona oraindik ahotik ezin kenduta genbiltzanean, postrea: Argia



Saria ATBrentzat. Gainontzeko komunikabideek albiste orokorrei garrantzia ematen dieten bitartean, ATBk herri informaziorako txoko

bat lortu duelako eman zitzaion saria ATBri; hau da, arrasatearrekin egunero ikusten duzuelako herriko telebista. Leialtasunaren saria.

Hilerik euritsuena

30 egunetatik 25ean bota zuen euria azaroan, guztira 381,1 litro metro karratuko. Orduan jakin zen Zaldizpeko ur-biltegia otsailera arte ez zela bukatuko. Biltegi berriarekin, Arrasatek 24 orduko autonomia izango du, bertan bilduko diren 6.850 m³ esker.

Karneta berrizten

Azaroan arte ez zen herrian nor-tasun agiria berrizteko aukerarik egon. Dagoeneko 5.500 eskaririk gora jaso dira.

Sexualitate zerbitzua

Udalak sexualitate zerbitzua antolatu zuen Gazte Bulegoan, sexualitateari buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzeko herritar guztiei. Zerbitzua astean bi egun zabaltzen da: astelehenetan 6etatik 8etara eta ostegunetan 3.30etatik 5.30etara.

IBILTARIENTZAKO PODOMETRIA
12.500 pta. 8.900

P.V.P.: 6.450
3.475

Uztegabeko opariak

P.V.P.: 13.950
9.500

Aukera ezin hobea

11.875 pta. 8.790

11.000 pta. 8.500

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
MULTIOPTICAS EIBAR

%15eko DTOA EGUZKIKO BETAURREKOTAN

GELDITU ERREGE BAT BEZALA. EGUZKIA OPARITU.

GIORGIO ARMANI
Armani
byblos
bollé
CARRERA
EASSUN
look
OCCIALI
INDO

Christian Dior
Rephan
paco rabanne
STING
NINA RICCI
YVES SAINT LAURENT
VOGART

byblos

byblos

Ibargarai, 16 BERGARA Tel. 76 15 75

UKIPEN LENTEAK

HILEKO ALDAKETA 12 LENTE
14.000 pta.

LENTILAK
18.000 pta.

HAUETARIKO EDOZEIN EROSTEAGATIK
MOTXILA ZORAGARRI HAU OPARI
APROBETXA ZAITEZ

J. M. Barandiaran Enp. ORDIZIA Tel. 88 99 88

Bidebarrieta, 2 EIBAR Tel. 20 05 22

ALTZARIAK • DEKORAZIOA


UGARTE

AROSZTEGIA

Altzariak



Ateak eta leihoak



*Urte Berri On
eta mila
Zorion!*

San Juan, 1 (Gasolindegiaaren parean)

BERGARA

Tel.: eta faxa: 76 54 91

Abendua

Al-Andalusek egoitza berria

Abenduaren lehen egunean inauguratu zen Al-Andalus taldearen egoitza berria. Inaugurazio ekitaldian Arrasateko alkateak, Jose Antonio Maturana Herrilan eta Garraio sailburuak, Jose Maria Gonzalez Euskadiko andaluziar etxeetako lehendakariak eta Andaluziatik etorritako hainbat alkatek hartu zuten parte.

Andaluziarren egoitza berriak 86 milioiko kostua izan du eta 930 metro karratuko zabaleradauka. Egoitza bi zatitan banatzen da, bata behealdekoa jende guztiarentzat zabalik dagoena, eta goiko zati kulturala, bakarrik bazkideendako dena. Al-Andalusek 430 bazkide ditu.

Ordura arte, andaluziarrek Erguinen izan zuten egoitza, oraingoa baino askoz ere txikiagoa, 150 metro karratukoa.



AKEIko erraustegiaren azken orduak

Aspalditik iragarrita zegoen bezala, abenduaren lehen egunean itzali ziren AKEIko labeak. Ez da AKEIn zabor gehiago erreko eta bailaran biltzen dena Sasietara eramaten da ordutik.

Erraustegiaren itxieraren kontua aspalditik ezagutzen bazen ere, uste baino korapilatsuagoa izan da. Alde bate-tik, Mankomunitateak itxieraren ondoren zaborra nora eraman erabakitzen zalantza handiak izan ditu; bestetik, hor dago AKEIko langileen arazoa. Erraustegia itxi eta lan

barik geratu dira bertan zebiltzanak. Itxiera baino aste batzuk lehenago langileek greba hasi zuten, euren lanpostuen defentsan, Dragados enpresari beste nonbait lana ematea eskatuz. Abenduaren azken egunetan Mankomunitateko lehendakariarekin elkarrizketa egitea lortu zuten, bertan behera utzi zuten Udaletxean egiten ari ziren itxialdia.

Labea martxan ez egon arren, AKEI ez da itxiko. Transferentzi gunea egingo da han, zaborra konpaktatzeko Sasietara eraman aurretik.

Kaixo ura erakusketa herrian

Ur Partzuergoaren Kaixo Ura erakusketa etorri zen Monterronera, ur zikinak garbitzeko plana erakutsiz. Erakusketan, araztegi txiki bat jarri zen, urtegian ura jasotzen denetik etxeetara iritsi arte garbitze prozesua zelakoa den erakusteko. Inaugurazian Xabier Zubizarretak esan zuen Arrasaten, gehien urbanizatutako tokian, gehiago kostako dela saneamendu plana gauzatzea.

AED lehiaketetan maila ona

Urtero bezala Santamasak baino apurtxo bat lehenago banatu ziren AEDren lehiaketetako sariak. 180 lagunek hartu dute parte aurtengo lehiaketetan, eta partaidetza jeitsi den arren, lanak kalitate handikoa izan direla aipatu zuten arduradunek.

Arkauz gose greban

Frantzian dagoen Josu Arkauz preso arrasatearra urtarrilean irtengo da kartzelatik. Dena den, polizia espainiarraren esku utz dezaketela eta, gose greba hasi zuen. Herrian elkartasuneko hainbat ekintza egin ziren.



OPIL OKINDEGIA

DONIBANE-PAPVR
GOZOTEGIA

Inazio Zuloaga, 2 • Tfel.: 79 80 50 • ARRASATE

*Hurbildu zaitetz
hemen izango
zaituzu.
ZORIONAK!!!*

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



IKATZ

eta

IÑURRATEGI Anaien

97ko egutegia lortu,

zure argazkiak

errebelatzerakoan



IÑURRATEGI Anaien expeditiotan partatzailea: IKATZ S. A.



*Ikatza ez da
Gabon hauetan
jaso dezakezun
oparirik txarrena.*



LASAGABASTER

*Gabon hauetan ez dezazu imitaziorik onartu.
Eros itzazu zure Levi's-ak bakarrik denda baimenduetan.*



VENTANAS SAN MIGUEL

**Ventanas San Miguelekin...
Denean irabaziko duzu.**

Erosotasunean irabaziko duzu.

**Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.**

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.

**Iturriotz, 24
ARRASATE
Tel.: 79 78 10**



*Etonki gurena!
Denean irabaziko duzu!*

■ Pako Gonzalez

IBAI ARTEKO LEHENDAKARIA



Pako Gonzalez Ibai Arteko lehendakaria da. Ezkonduta dago eta 3 seme-alaba ditu. 1961. urteko abuztuaren 10ean jaio zen, udaren erdian. ETEOn enpresa zientziak ikasi zituen. Gaur egun Okendo Kirolak dendako nagusia da.

1. Zein da zure horoskopoa? Leo.
2. Sinestuna zara? Bai.

3. Animalia bihurtzekotan? Orka.

4. Zure akats bat/gauza on bat? Harrokeria/Leialtasuna.

5. Zerk lotsarazten zaitu?

Besteen aurrean erridikuloan geratzeak.

6. Amets bat?

Munduan goserik ez egotea.

7. Zer kenduko zenuke mundutik?

Egoismoa.

8. Gertakizun historiko bat?

Lehen bonba nuklearra.

9. Nor miresten duzu?

Martin Luther King.

10. Zeri diozu beldurra? Seme-alabak ondo hezten ez jakiteari.

11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.

12. Negar egin duzun azken aldia?

Nire lagun onenatariko bat hil zenean.

13. Zer falta zaio Arrasateri?

Astialdirako tokiak.

14. Eta zuri? Momentuz ezer.

15. Lanbidez aldatzekotan? Institutoko irakaslea izango nintzateke.

16. Arrasateko gustoko toki bat?

Santa Barbara.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Ez dakit.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Mundo*.

19. Gustoko janari bat? Legatz kokotxak.

20. Liburu on bat? A. Huxleyren *Un mundo feliz*.

21. Filmerik onena/txarrena? *El Cazador*/Fassbinderen *Querelle*.

22. Musika talderik onena/txarrena? *Supertramp*/Ez dakit.

23. Telebistako programarik onena/txarrena? Documentos TV/Sorpresa, sorpresa.

24. Egin dizuten oparirik politena? Nobioak ginenean nire ernazteak oparitu zidan lehenengoa.

25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Familiarekin egoten naiz.


26. Oporretarako toki bat? Sierra Nevada, eskiatzera joateko.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Aspiradora pasatzea.

28. Gomendio bat? Leiala izan zeure buruarekin.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Emazteगतik eta seme-alabengatik.

30. 200 milioi irabaziz gero? Zati bat 0.7aren aldeko taldeari eta ONGei emango nieke.



IBABE Zorionak!
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA

Eguberri On!

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82

Jai Zoriontsuak!



HAURTXOA
Arrasate Pasealekua 4,
Tel.: 79 14 90
ARRASATE

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tel.: 79 19 71

Maixu Arano, 8
Tel.: 79 26 23

Jai Zoriontsuak izan!



Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70

Urte Berri On!

Orain 27 urteko argazkiak aurtengo azken

Fotozaharraren sailean. Ikastolako irakasleak eta orduko ikasleak Olentzero eskean irten ziren, Gabon bezperan jakina. Plazan dotore dotore jarri ziren guztiak argazkirako, gero txistularien laguntzaz herriko kaleak zeharkatze-ko.



Urtea: 1969 (Abenduak 24)

Argazkia: Ikerne Altube

Informazioa: Ikerne Altube

JUBAR

- Ate eta pertsiana automatikoak
- Mantenimendua
- Urrunerako aginte tresnak
- Seguritate pertsianak
- Sarbide kontrola

Kataide Poligonoa, 18 • ARRASATE • Tel.: 79 10 20 • Faxa: 79 08 17

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

TXIKILANDIA

97



**IGO ETA MUNDU ZORAGARRI
BATERA ERAMANGO ZAITUGU.**




Haur
eta gazte
ekintzak
AED

**Noiz: abenduak 30, 31
urtarrilak, 2, 3, 4, 5**

Non: Musakolako kiroldegian

**Ordutegia: 11etatik 2etara
4etatik 8etara**



*Biderik
zuzenena.*

*Mila esker
gugan
sinesteagatik.*



IKER

Sukalde eta bainu altzariak

SUKALDE ERAKUSKETA: Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA: Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42